

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

5047

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 2koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Anoeta Geltokiko Bigarren Atondoa Eraikitze Proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

2022ko uztailaren 27ko Ebazpenaren bidez, «Anoeta Geltokiko Bigarren Atondoa Eraikitze Proiektua» onetsi zen.

Proiektua Gipuzkoako probintzian kokatzen da, Donostiako udalerrian, eta, eraikuntza-mailan, honako obra zibil hau hartzen du barnean: Lasarte-Hendaia Topoaren lineako Anoeta geltokiko bigarren atondua definitzeko egin behar den obra zibila, Hendaiaiko norabideko nasetako muturrean.

Anoetako geltokia Amara auzoaren hegoaldean dago, Donostian, Anoeta futbol-estadioaren aurreko oinezkoen plazan. Geltokia Errondo pasealekuarekiko paralelo igarotzen da, eta Aita Donostia plazaren eta Begiristain Doktoarearen pasealekuaren ondoan bukatzen da. Geltokira sartzeko atondo bat du, Amarako norabideko buruhorman, nasaren burualdearen gaineko urbanizazio-lursailaren kotan.

Lursailak lortzeko, eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazio zehatza biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzatiaren zerrenda eta planoak.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituraren arloko jarduerak betearazteko beharrezkoak diren desjabetze-espedituentz izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Trenbide sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikulua xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen proiektuak, horien tartekak edo tren azpiegituraren beste elementu batzuk eraikitze proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenera berekin ekarriko du onura publikoaren edo gizarte-interesaren deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazko-tzat deklaratzeko, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berarekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18 eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrean jarri behar dela ezartzen dute, nahi duenak alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan ditzan, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zein diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

2022ko azaroaren 22a, asteartea

EBAZTEN DUT:

Jendaurrean jartzea «Anoeta Geltokiko Bigarren Atondoa Eraikitze Proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko, okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia-San Sebastián kalea, 1 – Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Donostiako udaletxeko iragarki-oholean ere erakutsiko da jendaurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 2a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2022ko azaroaren 22a, asteartea

ERANSKINA

Finka zk.	Katastroko erref. eta udalerria	Jabea	Eragin mota (m ²)			Izaera
			Erabateko desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa	
001	Donostia	Donostiako Udala	125	-	-	Hiri-finka
001	Donostia	Donostiako Udala	496	-	-	Hiri-finka
001	Donostia	Donostiako Udala	-	140	-	Hiri-finka
001	Donostia	Donostiako Udala	-	-	19.886	Hiri-finka